



Eta Espainian kartzela zigorren oihartzuna

“ELKARREKIN HOBETO” hasi zen ezetzaren kanpaina Eskozian, mezu erromantiko eta solidarioa kanpainaren erdian jarritz. Kanpainaren amaierarako mozorroa kendu eta argi jo du mehatxu ekonomikora: Ingalaterrako Bankuko Mark Carney agintari nagusiak Eskoziak libreakin jarraitzea ez duela sostengatuko iragarri du, eta enpresa eta finantza gune handienek ere Eskoziatik joango direla diote, besteak beste, Eskoziako petrolio kudeatzen duen BP konpainia erraldoiak.

Enpatearen unean, botere ekonomiko nagusiak giltzarri dira beldurraren estrategian, hala izan zen Quebecen, hala izango da Eskozian eta, beste neurri batean bada ere, hala Katalunian ere. Eskozian alde bakoitzak dagoeneko egin du berea eta orain herritarren txanda da. Ezin ezkutatu ezetzak etsipen maila bat ekarriko lukeela Katalunian edo Euskal Herrian, baina erreferendumera akordioz iristea bera jadanik ipar-orratz izango da luzerako estatuek nazio gisa eta subjektu politiko gisa onartzen ez dituzten herrientzat.

KATALUNIARENTZAT baiezkoa aldeko haize ufada litzateke. Ezezkoak ez dirudi halako eragin handirik ekarriko lukeenik. Diadak erakutsi du independentismoak inoiz baino indartsuago jarraitzen duela Kataluniako gizartean. Hedabide espainiar nagusiak bakarrik jarraitzen dituenak, oster, katalan soberanismoa paretaren aurka ikusiko du. Kontua ez baita han gertatzen dena erakustea, Espainiako iritzi publikoa irabaztea baizik. Euskal Herriko esperimentu luzeak jadanik argi eraku-

tsi digu garrantzitsuena hori dela Estatuko kolore desberdinetako gobernu eta alderdi nagusientzat, Espainian irabaztea. Eta horretarako barne etsaia ondo astintzea giltzarri da, Espainiaren arazoak ezkutatu eta kohesio zentralista trinkotzeko. Hala komeni denean, deabrua ETA da, Batasuna, Ibarretxe, Mas, ERC edo Podemos.

Oraingoz beldurraren estrategiak independentzia zaleen hazkundera besterik ez du ekarri Katalunian. Baina Espainiaren aldetik orain hasiko da benetako erantzun festa. Ostiral honetan, 19an, Kontsulta Legea onartuko du Kataluniako Legebiltzarrak. Espainiako Gobernuako Ministroen Kontseilua 22an bilduko bide da eta hor erabakiko litzateke Kontsulta Legearen aurkako helegitea. 23an Konstituzio Auzitegia bilduko da eta honek helegitea onartu orduko

Madrilek Esquadra Mossoak bere agintepean har ditzake eta Masentzat 15 urteko kartzela zigorra ekar dezakeen prozedura ireki

Kontsulta Legea bertan behera geratuko da behin-behinekoz. Hori gertatu aurretik egin behar du Masek A9ko kontsulta deialdia, seguruenik 20an bertan edo 21ean.

Oraindik ez legoke desobedientzia zehatzik, baina halakorik gertatuz gero jadanik neurri zehatzez ere hasi dira berbetan Madrilen: Esquadra Mossoak bere agintepean har ditzake eta Masentzat 15 urteko kartzela zigorra ekar dezakeen prozedura ireki. Hori kontsultarekin aurrera jarraituko balu. Baina ez dirudi desobedientziarik

egotekotan hau kontsultaren inguruan gauzatuko denik. Katalan soberanismoaren harribitxia da kontsulta, bere ibilbide demokratikoaren sinbolo eta Generalitateak eta Kataluniako Legebiltzarrak ezinbesteko dute halako tresna garrantzitsu bat garbi mantentzea, besteak beste, atzerrian desobedientzia kutsurik duen edozerrekin zikundu gabe aurkezteko. Oraingoa kontsultaren unea da. Baina ondoren hauteskunde aurreratuek izango da, soberanismo katalanak antolatzen eta independentzia eraikitzen jarraitzeko heldu leku aproposik badu hori baita. Adostasunari eusteko gai badira bederen. Desobedientzia doinuetarako unea, izatekotan ere, geroago etorriko da.

Bitartean, Espainiako Gobernuaren biderik zentzuzkoena Konstituzio Auzitegiaren esanak aintzat hartzea litzateke: Konstituzio Auzitegiak ezin ditu konpondu ordena konstituzionalean sortzen diren arazo guztiak, bereziki Estatuaren zati batek bere izaera konstituzionala aldatu nahi badu; zeregin hori botere

publikoen arteko negoziazio eta elkarriketaren bidez konpondu behar da.

2013ko urtarrilean Kataluniako Legebiltzarrak onartutako burujabetza adierazpena bertan behera uzteko, 2014ko martxoan Konstituzio Auzitegiak emandako epaiaren aholkua da. Hirugarren bidearen hauspo da Espainia batuaren ikusmolde errealistarenantzat. Bide logiko eta zentzuzkoena litzateke gatazka saihestu nahi duen edonorentzat. ■

